

Ekainaren 20a, Errefuxiatuen Mundu Eguna

GURUTZE GORRIAK 1.184 ERREFUXIATU ARTATU ZITUEN 2020AN EUSKADIN

- **Gurutze Gorriak bat egin du Pertsona Errefuxiatuen Munduko Egunaren ospakizunarekin, gizarteari egindako ekarpena aitortzeko eta ihes egiten dutenen eta hartzen dutenen artean zubiak eraikitzeko.**
- **Iaz, Gurutze Gorriak 1.184 pertsona artatu zituen Euskadin; horietatik % 59 gizonak ziren, eta % 41 emakumeak.**

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 18a. Errefuxiatuak dira arraza, erlijio, nazionalitate, iritzi politiko, talde sozial, genero edo sexu-orientazio jakin bateko kide izateagatik jazarpena jasateagatik beren herrialdetik ihes egin behar izan dutenak.

ACNURen (Iheslarietarako NBERen Agentzia) datuen arabera, 2020ko ekainaren erdialdean 79,5 milioi pertsona baino gehiago zeuden munduan indarrez desplazatuta. Gatazkak, indarkeria orokorra, giza eskubideen urraketak edo hondamendi naturalak dira biztanleriaren mugimenduen arrazoi nagusiak. Horietatik 26 milioi errefuxiatuak ziren.

Siriako gatazkak errefuxiatuen iturri nagusia izaten jarraitzen du, baina beste herrialde batzuek ere errefuxiatuen kopuru oso handia sortzen dute mundu osoan. Horien artean aipatzekoak dira Venezuela, Afganistan eta Hego Sudan. Herrialde hartzaile nagusien artean Turkia, Kolonbia, Pakistan, Uganda eta Alemania nabarmentzen dira.

EUSKADIKO ARRETAK

Euskadin nazioarteko babesaren eskatzaile eta onuradunentzako Harrera eta Integrazio Programan Gurutze Gorriak artatutako pertsonen kopurua aldatu egin da azken urteotan. 2019an 1.256 pertsona artatu zituzten. 2020an, 1.184 pertsona artatu zituen erakundeak (338 pertsona Araban, 547 Bizkaian eta 299 pertsona Gipuzkoan). Hau da, % 5,7 murriztu zen 2019ko datuekin alderatuta. Murrizketa hori Covid-19 pandemiari eta EBko estatu kideek ezarritako bidaia-murrizketei egotz dakieke.

BALIABIDEAK

Gurutze Gorriak aldi baterako harrerako 38 baliabide kudeatzen ditu gaur egun Euskadin: 13 Araban, 12 Bizkaian eta 13 Gipuzkoan. Guztira, 200 plaza betetzen ditu: 62 Araban, 68 Bizkaian eta 70 Gipuzkoan, Gizarteratze, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioak finantzatuta.

Gainera, Gurutze Gorria Eusko Jaurlaritzak gidatutako erakunde arteko gizarte-mahaian dago, Euskadin asilo-eskatzaileak sartzeko prozesua hobetzeko.

Gurutze Gorriaren esku-hartzearen helburua nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonekin haien babesa eta gizarteratzea bermatzea da. Programak hainbat fase ditu, lehenengo harreratik hasi eta autonomia prestatzeko fasera arte, 18 eta 24 hilabete bitartean. Denbora horretan, arreta integrala eta banakakoa ematen da, eta, besteak beste, honako zerbitzu hauek ematen dira: lehen harrera, aldi baterako harrera, laguntza legala eta psikologikoa, familia berrelkartzea, hizkuntza ikastea eta itzulpena eta interpretazioa, edo enplegua bilatzeko lanbide-gaitasuna aktibatzea, orientatzea eta hobetzea.

Bestalde, Gurutze Gorriak, www.migrar.org atariaren bidez, migratzaileentzako informazio interesgarria eskaintzen du bere buletin elektronikoaren eta sare sozialen bidez, haien gizarteratzea, laneratzea eta kultura errazteko.

Álvaro García Serrano

Marka eta Komunikazio autonomikoaren arduraduna

| +34 678 401 443

| comunicacionalava@cruzroja.es

| **Euskadi.** Portal de Castilla, 52. 01007 Vitoria-Gasteiz.

Gure idazkerak gure pentsamoldea islatzen du. Gurutze Gorria hizkuntza inklusiboaren alde.